



361/2014 Ebazpena, 2014ko abenduaren 22koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez irekitzen da 2014ko aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko epea; hain zuzen ere, 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietan eta izena emateko epea berriz irekitzeko premia sortu den beste 5 kategoriatan.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren bidez (142. EHAA, 2011ko uztailaren 27koa), 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak onartu ziren, Osakidetzan lotura estatutario finkoa eskuratzeko.

2011ko EPEa amaierako fasean dagoela, azken Enplegu Publikoaren Eskaintza honetatik eratorritako kontratazio-zerrenda berriak irekitzeko beharra ikusi da.

Aldi baterako kontratazio-zerrenda berriak 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian arautu dira (106. EHAA, 2011ko ekainaren 6koa). Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak emandako Erabakia da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak sortzeko eta kudeatzeko xedearekin.

2015 urtean antolakuntza aldaketa bat egingo da Osakidetzaren egiturari, Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) ereduarekin gehiago hedatuko baita. Hortaz, izena ematean egitura berria islatuko da, aldi baterako kontratazioko zerrendak irekitzean.

Era berean, aldi baterako kontratazio-zerrendak irekitzearekin batera, zenbait kategoriatan berriz irekiko dira, detektatutako premiei erantzuteko.

Horrenbestez,

EBATZI DUT:

Lehenena.- 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietan, 2014ko aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko epea irekitzea, 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Laugarren Atalari jarraiki. Horren bidez eman dira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak sortzeko eta kudeatzeko irizpideak.

Zerrenda horien baremazioa 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Laugarren Atalean zehaztutakoa betez egingo da, eta egun indarrean dauden zerrendak ordezkatzeko dituzte.

Bigarrena.- Era berean, oinarri hartuta 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Hamazazpigarren Atala, 2011ko EPEan deitu ez diren 5 kategorietan indarreko aldi baterako kontratazio-zerrendetan



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

izena emateko epea irekitzea, etorkizunean Osakidetza izan ditzakeen kontratazio premiei begira eskura dituen hautagaien kopurua handitzeko.

Zerrenda horien baremazioa 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Laugarren Atalean zehaztutakoa betez egingo da, egun indarrean dauden zerrenden ondo-ondokoak izan daitezen.


Hirugarrena.- Eskatera bide telematikoak erabilita besterik ezin izango da egin, <http://www.osakidetza.euskadi.net> web orriko honako ibilbide honetan eskuragarri dagoen aldi baterako programaren bitartez: Profesionala/Giza Baliabideak-Hautaketa eta horniketa/Aldi baterako kontratazioa/2014ko kontratazio-zerrendak/Eskatera.

Laugarrena.- Eskabideak aurkezteko epea 2015eko urtarrilaren 8tik 30era izango da, biak barne.

Bosgarrena.- Izena emateko epea zabaltzearekin batera web orrian argitaratuko diren Jarraibideetan honako hauek zehaztuko dira: kontratazio-zerrendak zein kategoriari dagozkion, zeinek eman ahal duen izena, kontratazio-zerrendetan onartua izateko aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta izen-ematearekin lotutako bestelako alderdi batzuk.

Ebazpen honen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko diote Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko abenduaren 22an



JOSE MARIA ARMENTIA MACAZAGA
IZENEMATEKO ZUZENDARIA
GIZAKO ZERBITZUAK
GIZAKO BALIABIDEAK

Izpta.: José María Armentia Macazaga
OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO
ZUZENDARIA